

Umeentzako ipuiak gipuzkeraz eta bizkaieraz. Oñatibia-tar Jon

Zeruko Argia, 362. zk., 1970-02-08: 7.

(Arrigarrizko ibillaldia, Ikasbide on bat, Sagutxo jakintsua, Sagutxo ausarta, Erbia ta apo-armatua ta Mitxiñ-en biurrikeriak, *Edili* 1969)

Euskera lanetan eten gabe ari dan gizona dugu Oñatibia-tar hau. Musika lanetan ere maixua da, ta ari da ixilik bere lanetan; dantza-lanetan ere iaioa dugu; ta ez dakit ikastola ta irrati-bidez egiten ari dan lan sakon onetaz berak merezi aiña ohartzen geran.

Orain umeentzako ipui batzuek euskeratu ta berea duan *Idili* argitaldiaren bidez argitaratuak ditu: *Arrigarrizko ibillaldia*, *Ikasbide on bat*, *Sagutxo jakintsua*, *Sagutxo ausarta*, *Erbia ta apo-armatua* ta *Mitxiñ-en biurrikeriak*; eta bi euskelkietan: bizkaieraz eta gipuzkeraz.

Gai onetaz itz bat esan nahi nuke.

Danok ondo dakigunez, euskera batu da gure bide bakarra; hemen ez ditut euskera osotuaren dohaiak aitatuko ezagunak dira-ta. Ala ere, ez dugu oraindik euskera osotua umei nola erakutsi behar diogunari merezi duan oldozketarik eskeiñi, ta bide hau lenbailen aztertua ta erabakia izan behar luke.

Ara hemen hauzia:

Aurrei euskera osotua erakusten asten ba gera, bere gurasoen itz-izkuntzetik urruntzen asiko gera, ta guraso-aurren komunikazio bideak ondatzen ari gera; guraso ta seme-alaben arteko artu-emanak garrantzi aundienekoak dira, ta ezin dugu auzi hau ariñegi pasatzen utzi. Bestetik, aur bakoitzari, bere euskelkian erakusten saiatzen ba gera, aitatuako arazorik ez dago, baiña idatzitako-euskeraren batasun alde orain egiten ari geran lan guziak arrotz izango zaizkio aurrari bere ikastola-liburuetatik urtetzen danean.

Nola erakutsi behar diegu euskera gure aurrei?

Nolabait lan hau aztertzen asi beharrean gora. Behar ba da, bi bideetako ikastola pilotoak aukeratu, ta bide bakoitzetik lan egiten asi behar genduke; ia ongarrien zein bide dan ikusteko. Bide batean, aurrak euskera batuan jarriko genituke asiera-asieratik, eta aurren ikas-bide hoiek aztertu ta guraso-aurren arteko artu-emanetan noraiño irixten geran ikusi. Beste bidean, aurrei bere euskelkietan erakutsi, ta bere ikasbideak eta gurasoekin dituzten artu-emanak noraiño erreztan dituan neurtu, ta gero euskera osotura nola igotzen diren ikusi.

Denbora artzen dute lan hoiek, noski, baiña gure izkuntzaren egoerari ondoen lagunduko ba diogu probaketak buruz egin beharrean izango gera.

Ta bide hoi bitarteko bat aitatu nai det emen.

Aurrei euskera osotua erakusten ari geran denbora berean, gaueko ikastoletan-edo, aur ohien gurasoei euskera osotua erakusteko bideak jartzea izango litzake ongarrien.

Euskeldunak diranentzat erreza izango litzake astean beingoan ikas-aldi bat ematea. Ziur nago aur-gurasoen artekoak asko errentuko lirakela.

Orain alfabetizatzeko kanpaiñak gertutzen ari diranentzat bide egoki-egokia izango litzake hau: aurren bidez gurasoak euskera-idatziaren bidean jarri.

Nola nai dala, auzia ortxe dago guk aztertu ta erabaki zai.

Bitartean, ondo asko datozkigu kolore apaiñekin, izki aundi ta errexekin eta euskera garbi ta egokiarekin Oñatibia-tar Jonek argitaratu dizkigun ipui-liburu hoiek.